

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 13/2018 Foru Dekretua, martxoaren 19koa. Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren barruko basogintza laguntzen plana arautzen duten oinarriak aldatzea, ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak eta martxoaren 7ko 11/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatuak, bai eta 2018rako haren deialdia ere

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuaren bidez, Basogintzarako Laguntza Planaren oinarri arauak onetsi ziren eta, ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 7ko 11/2017 Foru Dekretuaren bidez, laguntzak aplikatzea errazten zuten alderdiak aldatu ziren, besteak beste, planaren barruan jasotzen diren Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programak “nekazaritza eta basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak” M04.3 azpineurrian —azken sektore horri dagokionez— eta “inbertsioak basoguneak garatzeko eta basoen bideragarritasuna hobetzeko” M08 neurrian ezarritako laguntza lerroak, betiere 1305/2013 Arautegiak ezarritako mugen barruan; eta programa horretan sartzen ez den eta “basoen kontserbazioa” deritzon neurria. Aipatutako foru dekretu horren bidez, 2016rako laguntza lerro horietarako deialdia ere onartu zen.

Ezinbestekoa da laguntza horien oinarri arauak egokitzea, laguntza lerro horiei zati batean eragiten dien Europako Batzordearen C2017/3859 Erabakiaren bidez onetsitako Euskal Herriko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren bigarren aldaketaren ostean eta laguntzen esparru araudia ezartzen duen Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 14ko 43/2017 Dekretua eta sektore publikoaren kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea onetsitakoan.

Foru dekretu hau ez dago Arabako Foru Aldundiaren 2018ko Urteko Araugintza Planaren barruan sartuta, egin zenean ez baitzegoen aurreikusita Baso Laguntzen Planaren oinarri arautzaileak aldatzea. Nahitaezkoa da, berriz, horiek egokitzea Europar Batzordeak onartutako EAEko Landa Garapenerako 2015-2020ko Programaren aldaketari; ondorioz, sartu beharra dago 2018ko Urteko Araugintza Plan horren barruan.

Bestalde, kontuan izanik laguntza lerro horiek izapidetzeko Arabako Foru Aldundiko 2018ko gastu aurrekontuan kreditu nahikoa dagoela, beharrezko egiten da urte horretarako deialdia onartzea.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuaren proposamenez eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Basogintza Laguntzetarako Planaren oinarri arau hauek aldatzea. Ondoren aipatzen diren arau horiek Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuaren eranskinak ezarri eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 7ko 11/2017 Dekretuak aldatu zituen:

1.1. Eskaerak aurkezteko epea, era eta tokia arautzen dituen 10. artikulua 2. idatz zatia aldatzea. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

10.2 Laguntza eskaerak eskatutako inbertsioa hasi aurretik aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, eskualdeko edozein nekazaritza bulegotan. Bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak,

16.4 artikuluan ezarritakoetan aurkeztu ahalko dira. Ez dute bete beharko aurreko paragrafoan zehaztutakoa antolamendu planak eta basogintzarako kudeaketa jasangarriko planak idazteko laguntzek. Horien idazketa eta, ondorioz, fakturazioa eskaera aurretikoa izan litezke.

1.2. Aldatzea 12. artikulua (espedienteen “Ebazpena eta jakinarazpena”) 1. idatz zatia. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

12.1 Foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarrean den araudiaren arabera.

Baldin ez badago kreditu nahikorik laguntzak emateko betekizunak betetzen dituzten espediente guztiei, honela jokatu da:

– Lehenengo ebazpena emango da, eta bertan sartuko dira ezezkoa jaso duten espedienteak eta baiezkua jaso duten espedienteak, gordetako kreditua agortu arte, lehentasun irizpideak ezarri ondoren lortutako lehentasun ordenari jarraituz. Baiezkua jaso duten gainerako espedienteak erreserban geratuko dira bigarren ebazpena eman arte, zeina beranduenik ere deialdia egin den urteko azken hiruhilekoan emango baita; ebazpen horrek deialdia behin betiko ebatziko du, eta laguntza esleituko die aurrerago ezarritako lehentasun ordenaren arabera hala dagokien espedientei baldin kreditua gehitu bada, eta ukatu egingo zaie laguntza, krediturik ez badago.

Emandako ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, indarrean den araudiaren arabera. Dena den, aukerako berraztertze errekurtsua ere jarri ahal izango da.

1.3. Kentzea 14. artikulua (“Onuradunen betebeharrak”) 6.b idatz zatia. Hona hemen aurrerantzean 6. idatz zatiak izango duen testua:

14.6 Ezarritako informazio eta publizitate betebeharrak betetzea. Ondorio horietarako, eragiketa bat aurrera eramaten denean, onuradunek LGENFtik eskuratutako laguntzaren berri emango dute jendaurrean, beren webgunean, halakorik edukiz gero, batera finantzatutako eragiketari eta haren helburuei buruzko deskripzio labur bat eginez eta EBren laguntza finantzarioa nabarmenduz.

1.4. Aldatzea 19. artikulua 2.1 idatz zatiaren (“M08.1 Basotzea eta baso azalerak sortzea” neurriko baldintza zehatzak arautzen ditu) hirugarren lerroaldea. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

Hirugarren lerroaldea: Baldin 20 hektareako azalera baino handiagoan baso landaketa jarraitua eta aldi berekoa egiten bada, erabiliko den espezie nahasketan gutxienez ehuneko 10 hostozabalen espezie autoktonoak izan beharko dira.

1.5. Aldatzea 19. artikulua 5. idatz zatia (“M08.1 Basotzea eta baso azalerak sortzea” neurrian lehentasun irizpideak ezartzen ditu). Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

19.5 Lehentasun irizpideak.

Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarrituz:

1. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 25 puntu.

2. Natura 2000 Sarean sartutako mendietan aurrera eramaten diren jarduketak: 20 puntu.

3. Mendi pribatuetako jarduketak:

Jabeen talde edo elkarte bateko pertsona fisikoek sustatutako proiektuak: 10 puntu.

Emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu.

Gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu.

4. Mendi publikoetako jarduketak:

Ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 10 puntu.

Emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 10 puntu.

Puntuetan berdinketarik egonez gero, inbertsio bolumenik txikiena duten jarduketak lehenetsiko dira.

1.6. Aldatzea 20. artikulua 4. idatz zatia ("M08.3 Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea" neurrian lehentasun irizpideak ezartzen ditu). Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

20.4 Lehentasun irizpideak.

Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarrituz:

1. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 25 puntu.

2. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 20 puntu.

3. Mendi pribatuetako jarduketak:

Jabeen talde edo elkarte bateko pertsona fisikoek sustatutako proiektuak: 10 puntu.

Emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu.

Gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu.

4. Mendi publikoetako jarduketak:

Ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 10 puntu.

Emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 10 puntu.

Puntuetan berdinketarik egonez gero, inbertsio bolumenik txikiena duten jarduketak lehenetsiko dira.

1.7. Aldatzea 21. artikulua 4. idatz zatia ("M08.4 Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea" neurrian lehentasun irizpideak ezartzen ditu). Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

21.4 Lehentasun irizpideak.

Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarrituz:

1. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 25 puntu.

2. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 20 puntu.

3. Mendi pribatuetako jarduketak:

Jabeen talde edo elkarte bateko pertsona fisikoek sustatutako proiektuak: 10 puntu.

Emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu.

Gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu.

4. Mendi publikoetako jarduketak:

Ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 10 puntu.

Emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 10 puntu.

Puntuetan berdinketarik egonez gero, inbertsio bolumenik txikiena duten jarduketak lehenetsiko dira.

1.8. Aldatzea 22. artikularen 4. idatz zatiko ("M08.5 Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak" neurrian lehentasun irizpideak ezartzen ditu) 3. lerroaldea. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

22.4.3 Gainerako eragiketak:

1. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 25 puntu.

2. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 20 puntu.

3. Mendi pribatuetako jarduketak:

Jabeen talde edo elkarte bateko pertsona fisikoek sustatutako proiektuak: 10 puntu.

Emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu.

Gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu.

4. Mendi publikoetako jarduketak:

ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 10 puntu.

emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 10 puntu.

1.9. Aldatzea 23. artikularen 4. idatz zatia (M08.6 Baso potentziala hobetzeko inbertsioak neurrian lehentasun irizpideak ezartzen ditu). Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

23.4 Lehentasun irizpideak.

Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarrituz:

1. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 25 puntu.

2. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 20 puntu.

Baso lanen arloan:

3. Mendi pribatuetako jarduketak:

Jabeen talde edo elkarte bateko pertsona fisikoek sustatutako proiektuak: 10 puntu.

Emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu.

gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu.

4. Mendi publikoetako jarduketak:

Ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 10 puntu.

Emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 10 puntu.

1.10. Aldatzea 24. artikulua 4. idatz zatiko ("M04.3 Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak" neurrian lehentasun irizpideak ezartzen ditu) azken lerroaldea. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

Balorazioan berdinketarik gertatuz gero, sustatzaile sektorialek sustatutako proiektuek lehentasuna izango dute publikoek sustatutakoen aldean eta, era berean, erabiltzaile taldeek sustatutako proiektuek ekimen partikularrenen aldean: nekazaritzan edo basogintzan diharduten pertsonen taldeak edo elkarteak, nekazaritzan edo basogintzan diharduen pertsona, mankomunitateak edo administrazio batzarrak, udalak.

1.11. Aldatzea II. eranskineko moduluan hondamendien ondorengo jarduketetarako ezarritakoa. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

Jarduketak hondamendien ondoren. Eragindako zuhaiztiak garbitzea, ebakitzea, txikitzea, kentzea edo erabat ezabatzea (unaden arraseko mozketak): Moduluan 3.000 euro/ha-ra arteko balioa ezarriko da zuhaiztien adin hauetarako:

- 16 urtera arte, ziklo laburreko espezieetan.
- 22 urtera arte, ziklo ertaineko koniferoetan.
- 24 urtera arte, ziklo ertaineko hostozabal autoktonoetan eta ziklo luzeko espezieetan.

Adin horietatik aurrera, modulua linealki murriztuko da 1.450 euro/ha-ko gutxieneko baliora arte, honako hauetan: 30 urteko zuhaiztiak, ziklo laburreko espezieetan; 55 urteko zuhaiztiak, ziklo ertaineko espezieetan; eta 90 urteko zuhaiztiak, ziklo luzeko espezieetan. Adin horietatik aurrera ez da laguntzarik emango kontzeptu horrengatik.

1.12. Aldatzea II. eranskineko moduluan ongarrizeari buruz ezarritakoa. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

Gaztetan ongarritzea (200 kg/ha): 300 euro/ha.

Ongarritze trinkoa (500 kg/ha): 450 euro/ha.

1.13. Aldatzea II. eranskineko modulua, Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plan Teknikoari (BKIP) dagokionez. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

BKIP soila

- 4 barruti edo gutxiago: 200 euro/ha.
- 5-9 barruti: 220 euro/ha.
- 10-19 barruti: 275 euro/ha.
- 20 barruti edo gehiago: 385 euro/ha.

Bigarrena. Basogintzarako 2018ko laguntzen deialdia onartzea, jarraian zehaztutakoaren arabera:

Laguntza lerroak edo neurriak:

- M08.1. Basotzea eta baso azalerak sortzea.
- M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea.
- M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea.
- M08.5. Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak.
- M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea.

– M04.3. Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak.

– Basoen kontserbazioa.

– Eskaerak aurkezteko epea: 40 egun natural, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Laguntza horien euneko 53 LGNEFek finantzatzen du, bi salbuespenekin: M8.1 “Basotzea eta baso azalerak sortzea” lerroaren euneko 75 finantzatzen du Europak, eta “Basoen kontserbazioa” izeneko lerroa aldundiaren aurrekontuekin finantzatzen da oso-osorik.

Kreditu erreserbak: Arabako Foru Aldundiaren 2018ko gastu aurrekontuaren barruan jarraian aipatzen diren partiden kontura:

– 40.1.06.45.00.7.6.2.90.04 “Mendi publikoetako laguntzak”:

576.234,00 euro (63.734,00 euro 2018an, 400.000,00 euro 2019an eta 112.500,00 euro 2020an) mendi publikoetan aurrera eraman beharreko honako neurri hauen laguntzak ezartzeko: M08.1. Basotzea eta baso azalerak sortzea, M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea, M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea, M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea eta M04.3. Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak.

50.000,00 euro 2019an eta 50.000,00 euro 2020an, “Basoen kontserbazioa” izeneko neurri nazionalari dagozkion laguntzak ezartzeko.

– 40.1.06.45.00.7.6.2.90.03 “Mugaketak eta mugarritzeak”: 268.152,00 euro (43.152,00 euro 2018an, 150.000,00 euro 2019an eta 75.000,00 euro 2020an), M08.5 “Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak” neurriko laguntzak ezartzeko.

– 40.1.06.45.00.7.8.0.00.02. “mendi partikularrentzako dirulaguntzak”: 415.000,00 euro (40.000,00 euro 2018an, 250.000,00 euro 2019an eta 125.000,00 euro 2020an) mendi partikularretan aurrera eraman beharreko honako neurri hauen laguntzak ezartzeko: M08.1. Basotzea eta baso azalerak sortzea, M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea, M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea, M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea.

Esandako kredituak zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita ere aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, neurri bakoitzerako hasieran erreserbatutakoren adina izango dira.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaile hauen kontra nahiz deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurso guztiak ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu hau sartzea Arabako Foru Aldundiaren 2018ko Urteko Araugintza Planaren barruan, hain zuzen, Foru Gobernu Kontseiluak maiatzaren 23an onartua 29/2017 Dekretu bidez.

Bosgarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean

Gasteiz, 2018ko martxoaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE